

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2019ko martxoaren 15ean aurkeztuko du

Allora & Calzadilla: *Farmazia tropikala*

Allora & Calzadilla: *Farmazia tropikala*

- Data: 2019ko martxoak 15–ekainak 23
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2019ko martxoaren 15etik ekainak 23 arte, Guggenheim Bilbao Museoak Allora & Calzadilla: *Farmazia tropikala* erakusketa hartuko du Film & Video aretoko 2019ko erakusketa-programaren baitan; gune horretan, bideoartearen, ikus-entzunezko instalazioaren eta mugimendudun irudia lengoia artistiko gisa darabilten piezak aurkezten ditu Museoak. Oraingo honetan, erakusketak Jennifer Allora (Filadelfia, AEB, 1974) eta Guillermo Calzadilla (Habana, Kuba, 1971) artisten hainbat obra eskaintzen ditu; biek ala biek 20 urtetik gora daramate elkarrekin lanean, eta arte-praktika garaikideen funtsezko erreferente dira.

San Juan (Puerto Rico) hirian egoitza duen bikote honen obra bideoinstalazioaren, performancearen eta eskulturaren arteko bidegurutzean kokatzen da. *Farmazia tropikala* lanak hiru bideo batzen ditu, Guggenheim Bilbao Museoko 103 aretorako berariaz pentsatu den multzo batean. Hautaketa honek agerian jartzen du Allora eta Calzadillak Puerto Rico irlan egindako proiektuen funtsa eta aniztasuna; hainbat ikuspuntu baliatuz ikertzen dute lurralde hori, kultur historiaren, ekologiaren eta geopolitika globalaren arteko harremanak auzitan jartzeko.

Erakusketari izenburua ematearekin batera, *Kanpaa, hondeamakina eta farmazia tropikala* (*The Bell, the Digger, and the Tropical Pharmacy*, 2013) proiektioak modu ikusgarrian dokumentatzen du farmazia-laborategi baten eraisketa barrutik; hain zuzen ere, Puerto Ricon behin-behinean ezarritako enpresa estatubatuar baten jabetza zen eraikin hori. Jazoera horrek agerian ipintzen du lurralde horren ahulezia materiala; izan ere, AEBrekiko estatu “libre elkartu” edo “ez-inkorporatu” gisa duen estatus kolonial bereziak ezaugarritzen du. Era berean, instalazioen eraisketa geldiezinak eta hartarako erabilitako makineriak gogora dakarte kapital-ihesaren erritmo frenetikoa zor-krisi larriak jotako lurralde horretan. *Farmazia tropikalak*, bere izenburuarekin, Karibeko berezko bioaniztasunak gizakien erabilerarako duen potentzial itzela iradokitzen duen arren, berebat azpimarratzen ditu, ironiaz, osasun-gabeziak eta laguntza humanitarioaren falta, Karibeko herrialdeak jasan dituen hondamendi meteorologikoen ostean, zeinak batu baitzazkio lurraldearen kolapso finantzarioari. Bideoan, artistek ordezkatu egiten dute hondeamakinen pala kanpai batekin, eta hala, eraikinaren suntsiketa soinu-performance bitxi bilakatzen da. Arkitektura behera datorren heinean, kanpaiak seinale bat igortzen du, gogora ekartzen duena akaso dei bat, garai aldaketa bat, gertaera goibel bat edo ingurumen-alarma pizten duen ahots bat.

Proiektio hori *Izerdi-guruinak, izerdi-lurrak* (*Sweat Glands, Sweat Lands*, 2006) lanarekin tartekatuko da; Solomon R. Guggenheim Museum-en Bildumako artelana da hori, eta René Pérez Joglar musikariarekin elkarlanean sortu zuten. Residente Calle 13 ezizenez da ezagunagoa artista hori, eta pop latinoko figura entzutetsua izateaz gainera, 25 Grammy sari irabazi ditu azken urteetan. Eszena labor eta misterioitsu batek espazio erdi-eraiki eta erdi-abandonatu batera garamatza: haragia erretzeko egitura prekario bat dago,

bertan *lechonera* izenez ezagutzen dena, eta haren ondoan auto bat, barbakoa-tornu baten modura funtzionatzeko aldatutakoa, patxadaz erretzen ari den gizon bat barruan duela. Autoko azeleragailuari eraginez, pertsona horrek gupilaren ardatzean sartutako txerri bat birarazten du, soinu-bandan Residente artistek idatzitako poema kaotiko bat errezipitatu entzuten dugun artean. Herri hizkerari dagozkion esapidez josita dago testua, eta prozesu organikoekin nahasten diren irudiak iradokitzen ditu. Primitibismoaren eta globalizazio ekonomikoaren gomutak nahasi egiten dira animalia-pertzepzioari, tropikoari eta bertako ekosistema hauskorri eragiten dioten krisi anitzei dagozkien begitazioekin. Autoaren motor zaharrak egiten dituen zaraten erritmoak erabat markatzen du eszena bitxia, eta bisualki erabat betetzen du protagonistetako bakoitzak sortzen duen keak: autoak, gidariak eta txerri erreak.

Bi obra horiek *Epemuga (Deadline, 2007)* lanarekin txandakatu, eta harekin etengabeko elkarriketan jarduten dira; George urakana San Juanetik igaro ostean egindako 16 mm-ko filma da. Palmondo-adar bat agertzen da, bi palmondoren artean larri zintzilik airean. Kometa-hari ikusezin batetik zintzilik, adarrak desafio egiten dio grabitateari bere erorketa geldian, eta denbora-tarte bitxia sortzen du paisaia suntsituaren erdian.

Farmazia tropikala osatzen duten hiru lanak Jennifer Allora eta Guillermo Calzadillaren *modus operandi*aren adibide dira; izan ere, eguneroko objektuen funtzioak eraldatu, nahasi eta berrasmutzen dituzte larrialdi-egoeren testuinguruan. Haien bulkada eraldatzaileaz, obra hauek etsipen materialari emandako erantzuna dira, eta esperantza berpizteko saiakera gisa uler daitezke.

Allora & Calzadilla: Biografia

Jennifer Allora (Filadelfia, AEB, 1974) eta Guillermo Calzadilla (Habana, Cuba, 1971) San Juan (Puerto Rico) hirian bizi eta bertan egiten dute lan. 1995etik jardun dira elkarrekin lanean, eta hainbat bakarkako erakusketatan parte hartu dute nazioarteko museo nahiz kultur-erakundeetan, hala nola: Museo de Arte Moderno de Medellín; Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona; MAXXI, Erroma; ALT Art Space, Istanbul; Philadelphia Museum of Art eta Fabric Workshop and Museum, Filadelfia; MoMA, New York; The National Museum of Art, Architecture and Design, Oslo; Haus der Kunst, Munich; Stedelijk Museum, Amsterdam; Serpentine Gallery, Londres, edo Palais de Tokyo, Paris. Halaber, nazioarteko erakusketa entzutetsuetan parte hartu dute, baita Kassel-eko Documenta-n eta Venezia, Istanbul, São Paulo eta Whitney-ko bienaletan ere. 2015ean lan berezi bat aurkeztu zuten Puerto Ricoko Dia Art Foundation-erako, Para la Naturaleza —Puerto Ricoko babespen fideikomisoa— erakundearekin elkarlanean. Nazioarteko sari eta beka ospetsu ugari jaso dituzte: adibidez, DAAD, Berlin (2008–2009); Gwangju-ko bienaleko saria, Hego Korea (2004); Penny McCall Foundation Grant (2003); eta Joan Mitchell Foundation Grant (2002).

Topaketa artistekin: Allora & Calzadilla (martxoak 14, 18:30)

Jennifer Allora eta Guillermo Calzadilla *Farmazia tropikala* erakusketaren inguruan mintzatuko dira Manuel Cirauqui Museoko arte arduradun eta Film & Video aretoko komisarioarekin, baita Karibe aldeko sormen-testuinguruaren baitan haien lanak duen tokiaz ere. Topaketa martxoaren 14an izango da, 18:30ean Guggenheim Bilbao Museoko Entzugelan. Solasaldiaren ostean, mahai-ingurua izango da bertaratutakoekin.

Film & Video (103 aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako gunea da, eta Guggenheim museoetako bildumetan nahiz nazioarteko beste erakundeetan dauden obrak aurkeztea du xede. 2016an zabaldu zenetik, Film & Video aretoak honako artista berdingabe hauen sorkuntzak izan ditu ikusgai, besteak beste: Christian Marclay, Ragnar Kjartanson, Rineke Dijkstra, Kimsooja, Shahzia Sikander, Sam-Taylor Johnson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel eta Pierre Huyghe. 2018. urtean, Michael Snow, Javier Téllez eta Diana Thater-en lanak erakutsi ziren.

Azaleko argazkia:

Allora & Calzadilla

Karpaia, hondeamakina eta farmazia tropikala (The Bell, The Digger, and The Tropical Pharmacy), 2013

Bereizmen handiko bideoa koloretan, soinuduna, 20 min 40 s

Hauen eskaintza: artistak

© Jennifer Allora, Guillermo Calzadilla

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
Allora & Calzadilla: *Farmazia tropikala*
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoki bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Allora & Calzadilla

Kanpaia, hondeamakina eta farmazia tropikala (The Bell, The Digger, and The Tropical Pharmacy), 2013

Bereizmen handiko bideoa koloretan, soinuduna, 20 min 40 s

Artisten eskaintza

© Jennifer Allora, Guillermo Calzadilla



Allora & Calzadilla

Izerdi-guruinak, izerdi-lurak (Sweat Glands, Sweat Lands), 2006

Bideo digitala koloretan, soinuduna, 20 min 21 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Guggenheim UBS MAP Purchase Fund, 2014

© Jennifer Allora and Guillermo Calzadilla



Allora & Calzadilla

Epemuga (Deadline), 2007

Bideoa, 16 mm-ko filmetik transferitua, 3 min

Artisten eskaintza

© Jennifer Allora, Guillermo Calzadilla

